

ZIRKULAZIO-BAIMEN BEREZIA

IEOaren IX. eranskineko 6. atalak (aipatutako PRE/2788/2015 Aginduak gehitua) konfigurazio euromodularreko ibilgailu multzoaren zirkulazioa baimentzen du baldin eta trafikoko eskumena duen organoaren baimena jasotzen bada.

Zirkulazio-baimen berezi hori zirkulazio-baimen osagarrien ezberdina da. Izan ere, konfigurazio horrek abian ez ditu gainditzten legeak ezarritako gehieneko masak eta dimentsioak, ez eraikuntzari dagokionez, ez eta garraiatzen duten karga zatiezinari dagokionez ere.

Aipatutako 6. atalaren arabera, EMS ibilgailu multzoen zirkulazioa onartuko da bide-titularrak txosten loteslea eman eta gero, epe jakin baterako eta baimenean ezartzen diren baldintzapean. Karga ezin izango da izan ibilgailuaren planta-proiektzioa baino handiagoa. Ahal den guztietan, garraio horien ibilbidea autobide eta autobietan zehar joan behar da, edo "zirkulazio-norabide bakoitzerako galtzada berezituak" dituzten errepide arruntetan zehar.

PRE/2788/2015 Aginduaren aurreikuspena betetze aldera, eta EAEko bideen zirkulazioa zaintzeko organo arduraduna den aldetik, Trafiko Zuzendaritzak honako jarraibide hau eman du. Haren bitartez, EMSen zirkulazioa baimentzeko baldintzak eta beharrezkoak diren gainerako alderdiak ezartzen dira.